

MEMORIA

**20
18**

**JAIALDIAK
DKLUBA**



OKLUBA



Pristine / Glad is the Day / Gartxot

Dkluba hemengo musika independentearen marka bihurtu da dagoeneko. 2018an, 18.876 ikus-entzule izan ziren 54 kontzertutan, zeinak taberna, aire libreko agertoki eta **Intxaurrondo Kultur Etxeko** aretoan egin baitziren.

Programak, musika eskaintzeaz gainera, beste sinergia batzuk eragiten ditu, hala nola urrian sortutakoa, **Willis Drummond** taldeak sorkuntza-egoitzaldia egin baitzuen **Intxaurrondon**. Bandak DVDan grabatu eta **Durangoko Azokan** salgai jarriko zen kontzertua prestatzeko baliatu zuen egoitzaldia. Esperientzia hura ezagutu eta bizitzeko, **Lauaizeta Ikastolak** topaketak izan zituen taldearekin, eta material grafikoak sortu zituen, zeinak orain, Kultur Etxearen beraren erakusketa batean jarri baitira ikusgai. Beraz, Dkluba musika baino gehiago da.

Izan ere, **Intxaurrondo Kultur Etxea** erreferentzia-fenomeno bihurtzen ari da bere hartan: duen musika-eskaintzak eta erosotasunak jarraitzaile talde bat sorrarazi du, 2017tik hona kontzertu-aretoko sarrera guztiak agortzen dituen. 2018an, **Willis Drummond**, **Doctor Deseo** eta **Su Ta Garrek**, besteak beste, aurrez itxiarazi zuten leiha-tila, sarrerak agortuta.

Dklubako aire libreko agertokiei dagokienez, udako hitzorduen artean arrastoa utzi duenetako bat **Musikaren Eguna** da, Fnac-ekin batera antolatua. Ekainaren 13an, Loiola kalea musikaz bete zen goizean zein arratsaldean. Zazpi kontzertuk girotu zuten espazio publikoa; nabarmentzekoak **Travelin' Brothers** eta **Rural Zombies**enak. Jarduera horrek gero eta jarraitzaile gehiago ditu urtetik urtera.

Baina, Dklubak udako musika-agen-daren alde egindako apustuen artean, **Glad is the Day** izan da, ezbairik gabe, urteko izarra. Ekinbidea 2016ko



Su Ta Gar



Tempera

Kultur Hiriburutzatik dator, eta sendotzen ari da: egun batetik bira luzatu zuen iraupena, (abuztuaren 4an eta 5ean izan zen), kolaboratzaile bat gehiago lortu zuen (**Kutxa Kultur**) eta agertoki gehiagotara iritsi zen (**Le Bukowski** eta **Dabadabara**). Edizioak, eguzki ederra nagusi zela, 30 artista baino gehiago bildu zituen, azokatxoa, arte-instalazio bat eta jan-edarien salmentamahiak. Ezbairik gabe, hitzordu hau bere lekua egiten ari da Donostiako udako egutegian.



Glad is the Day